



2024SPLE0013
13.bilera: OHIKOA 2024/12/19

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/13
EGUNA: 2024/12/19
HASIERA ORDUA: 19:00
AMAIERA ORDUA: 19:25
TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.
Monica de Prado Paniagua.
Jon Riaño Ojanguren.
Anton Garay Berezibar.
Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.
Itziar Irizar Beristain.
Antxoka Elorza Altuna.
Oihana Irusta Lazkano.
Aritz Larrañaga Unanue.
Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko azaroaren 28an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, inork ez zuen ezer adierazi, eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko azaroaren 28an egindako osoko bilkuraren bileraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

4.- Onartzea, hala badagokio, 2025eko aurrekontua.

Alkateak

aurrekontuen proiektua horrela azaldu zuen:

«Aurrekontuen azalpenarekin hasi aurretik, azpimarratu nahiko nuke gaur onartuko ditugun aurrekontu hauek EAJ-PNV eta Orain Debak osatutako Udal gobernuaren eta Deba eta Itziarko EH Bilduren arteko elkarlanaren eta negoziazioen emaitza direla.

Aurrekontuaren nondik norakoei helduko diet lehendabizi.

2025 urteko aurrekontu bateratua 10.478.950 eurokoa da. Kopuru honetatik Debako Udalaren aurrekontu propioari dagokion kopurua 10.161.991 eurokoa da, Itziarko Auzo Udalari 1.226.443 euro dagozkio eta Deba Musikali, berriz, 678.808 euro.

Diru-sarrerei dagokienez,

- Zuzeneko zergek diru-sarreraren %27 osatzen dute, 2.709.761 euro.*
- Foru Funtsetatik aurrekontuaren %53 jasoko dugu, 5.401.649 euro.*
- Tasen bitartez %19a jasoko dugu, 1.942.458 euro.*
- Eta azkenik ondareari dagozkion sarrerak % 1 dira, 51.305 euro.*

Gastuaren banaketari dagokionez, berriz:

- Antolakuntza atalera 5.062.915 euro bideratuko ditugu, aurrekontuaren %49,82, eta horietatik gastu nagusienak langileen soldatak eta bigarren kapitulari dagozkion zerbitzuen kostua litzateke.*
- Herritartasunak aurrekontuaren %18,68 jasoko du, 1.898.661 euro.*
- Lurraldetasunak aurrekontuaren %24,15 hartuko du, 2.453.940 euro.*
- Eta Gizarte Zerbitzuek eta Berdintasunak aurrekontuaren %7,40 suposatuko dute,*



2024SPLE0013
13.bilera: OHIKOA 2024/12/19

751.475 euro.

Hasieran aipatu bezala, Itziarko Auzo Udalak 1.226.443 euroko aurrekontua izango du. Deba Udalak 1.215.593 euro bideratuko ditu Auzo Udalera, eta baita pertsonalari dagozkion beste 201.510 euro ere.

Deba Musikalek 678.808 euroko aurrekontua izango du. Kopuru honetatik Deba Udalak %55 hartzen du bere gain, %29 Eusko Jaurlaritzak egiten duen ekarpena da, eta gainerako %16 ikasleek ordaintzen duten kuotetatik dator.

Gaur onartuko ditugun aurrekontuek adostasunetara iristeko guztion konpromisoari eta Udalbatza osatzen dugun alderdi guztien adostasunetara iristeko nahiari erantzuten diete.

Hainbat lan bilera ondoren, akordioetara iristeko gai izan gara, datorren urtera begira, debarren bizi-kalitatea hobetzeko urrats sendoak ematen jarraitzeko, gure udalerrriaren ongizatearekin, jasangarritasunarekin eta Debaren garapen orekatuarekin dugun konpromisoa indartuz, Deba bizitzeko herririk onena izan dadin.

EAJ-PNV, Orain Deba eta Deba eta Itziarko EH Bilduren arteko akordioan jaso ditugun puntuan honako hauek dira:

1.- Etxebizitza plana: dagoeneko abian den Etxebizitza Planari 2025ean jarraipena emango diogu eta otsaileko Antolakuntza Batzordean lan bileren egutegia zehaztuko dugu, uztaila bukaerarako azterketa amaituta egon dadin eta urte bukaerarako ekintza plana zehaztuko dugu.

2.- Agirretxeko ur depositua: urtarrileko edo otsaileko Lurraldetasun batzordean obrari dagokion egutegia aurkeztuko dugu eta 2025eko lehen hiruhilekoan Grupo Eibar ur deposituaren obrarekin has dadin bermatuko dugu.

3.- Tokiko energia komunitatea: 2025 urtean zehar herritarrei hirugarren aukeraren aurkezpena egingo zaie eta Udala kooperatibaren parte izango da, sorreran zein garapenean.

4.- Zaintzaren alorrean Udalak eskaintzen dituen zerbitzu publikoen hobetzea: Eguneko Zentroa asteburu eta jai egunetako irekitzeko bideragarritasun plana egina egongo da 2025 urteko lehen hiru hilabeteetan, eta ondorioak biltzean Gizarte Politika eta Berdintasun batzordean gaia landuko da. Diru partida jartzeko konpromisoa hartzen dugu zerbitzua bideragarria dela ikusten badugu.

5.- Lanpostuen zerrenda 2025eko urtarrileko osoko bilkuran lanpostuen zerrenda eguneratua onartuko dugu. Urtea amaitzerako lanpostu bakoitzaren balorazioa egingo dugu.

6.-Udal aurrekontuan honako partidak txertatuko ditugu:

- Giza eskubideen esparruan lanean dabiltzan eragileentzat diru-laguntza: 2.000€*
- Kultur Ekin programaren diru kopurua gehitzea, eta 9.000€ko partida izatea.*

- *Zuhatza Euskara Elkartearen hitzarmenean 2024ko kopurua mantentzea: 37.500€*

- *Goaz antzerkia euskaraz taldeari 14.000€ko dirulaguntza ematea.*

- *Kultur taldeentzako diru-laguntzak partidan 2023ko kopurura itzultzea: 25.000€*

7.- Txosten eta irizpen teknikoetarako dagoen diru partidatik: 2025ean zehar Aldats pilotaleku gaineko espazioaren azterketa eta gune balioanitze sortzeko aurreproiektuaren zirriborroa egiteko konpromisoa hartzea.

8.- Udalerrri osoko azterketa sozio-ekonomikoa egitea: inbertsioetako memorian jasotzea eta urtearen amaierarako lana egina izatea.

Azpimarratu nahi dut aurrekontu hauek, egungo beharrei erantzuteaz gainera, etorkizunerako prest dagoen udalerrri baterako oinarriak jartzen dituztela, Deba inklusiboago, jasangarriago eta dinamikoagoa lortzeko bidean.

Eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi egindako lanagatik, erakutsitako eskuzabaltasunagatik eta elkarlanerako eta elkar ulertzeko egindako ariketagatik.

Eskerrik asko.»

Gilen Garciak, Alkatearen hitzak eskertu ondoren, adierazi zuen eurek ere pozik zeudela, ariketa denon artean egin zela, zintzotasunez, eta akordio batera heltzeko gaitasuna erakutsi zela. Uste zuela herritarrek ere hori eskatzen dutela, eztabaidatzeko gaitasuna, eta hortik diagnostiko partekatatu bat lortzea, eta hortik, akordioak lortzea aparta dela, eta eurek hori baliatu zutela, aukera hori ezinbestekoa ikusten zutela, eta epeak, osoko bilkuraren hurbiltasuna, kezka eta estualdia sortzen bazuen ere, ez zuelako errazten lasaitasunez ibiltzea, baina denboraz larri ibiltzeak erakutsi duela borondatea bazegoela. Iruditzen zitzaizela udalerrriarentzat eta herritarrentzat albiste ona dela, eta Debaren erronka nagusiei heldu eta erantzun bateratu bat emateko unea dela. Akordioaren inguruan, adierazi zuen etxebizitza planak eta azterketa sozio-ekonomikoak, udalerrri osokoak, HAPOn aurre lanketa gisa planteatzen zutela; zaintza alorrean eguneko zentroaren bideragarritasun plana; hirigintzan, ur depositua eta Aldats pilotalekuaren gaina; herriko eragileei edo talde desberdinei eragin dakiekeen partidak; udal antolaketari lotuta garrantzitsua izango dela lanpostuen zerrenda; eta trantsizio energetikoan dagoen erronkan, tokiko energia komunitatearen sorrera bultzatzea. Oso albiste ona zela aurrekontuak aho batez onartzeak, eta behin akordioa lortuta eta ariketaren emaitza ona jasota, elkar lanerako oinarri sendoa izan daitekeela.

Arantza Egaña, Itziarko auzo alkateak, lehenik eta behin, eskerrak eman zien denoi, azken finean akordio batera heltzeak pozgarria delako denontzako. Itziarko Auzo Udalari dagokionez, iazko gaizki ulertua gainditu zirela, eskatzen zuten gauza bakarra zela onartuko formula aplikatuta tokatzen zaiena jasotzea, eta aurten ez zela arazorik egoon eta, alde horretatik, balorazio positiboa egiten zutela. Auzo Udalaz gain, akordio bat lortu izana gauza pozgarria zela guztiontzat. Lantzeko denbora gutxi izan dela, baina gustura zeudela. Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua 1.200.000 euroko ingurukoa bada ere, eskatzen duela kontuan izatea Mankomunitatearen zaborraren tasa %8 igo dela, eta Itziarko zaborragatik 515.000 euro inguru ordaintzen dela, poligonoa ere bertan barneratuta dagoelako. Horrela, margen haundirik ez du uzten, eta akordioan jasotako lanketei zaborren kudeaketaren inguruko lanketa eskertuko zutela Itziartik, ez dela lan erreza izango, baina uste zuela egin beharreko lana dela. Dena den, pozik zegoela lasaitasun hau eskertzen delako.

Alkateak erantzun zion zaborraren kudeaketan ere saiatuko direla, behin baino gehiagotan hitz egin dutela, eta horretan ere saiatuko direla.



2024SPLE0013
13.bilera: OHIKOA 2024/12/19

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zituen 2025. ekitaldirako aurrekontuak.

5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren eta Euskaltzaleen Topagunea Federazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena.

Alkateak lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroaren gorabeherak azaldu zituen: hitzarmenaren xede nagusia da bi entitateen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea, Euskaraldiaren 4. edizioaren dinamizazioa egiteko. Horretarako Topaguneak Deban Euskaraldia ekimena dinamizatzeko lan jardun erdiz langile bat jarriko du, 2025eko urtarrilaren 7tik ekainaren 7ra bitartean, eta Debako Udalak 12.879,00 euroko dirulaguntza emango dio Topaguneari hitzarmenaren zehazten diren jarduerak garatzeko.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Udalaren eta Euskaltzaleen Topagunea Federazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena.

6.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren arteko lankidetzaz hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen eta gizarte zerbitzuek artatutako pertsonen artean botiken erabilera optimizatzeko programa garatzeko.

Alkateak azaldu zuen Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordeak, 2024ko abenduaren 10ean eginiko bileran, hitzarmena onartzearen aldeko irizpena eman zuela, baina nabarmendu nahi zuela ekimena Gipuzkoako Botikarien Elkargo Ofizialetik egindako eskaera bat izan zela, Udalarekin harremanetan jarri zirela Deban programa hori ez zegoela martxan, eta hitzarmenari atxikitutako herriko farmaziek hitzarmenaren jasotzen diren erabiltzaileei hilabeterako pastilleroak prestatzen dizkietela Udalarentzat eta erabiltzaileentzako inolako kostutik gabe. Horrela, ideia ona iruditu zitzaizela eta Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordetik pasa ondoren osoko bilkurara ekartzen zutela gaia, eta horrek onartuz gero, astelehenean, goizeko 10etan sinatuko zela hitzarmena Gipuzkoako Botikarien Elkargoarekin, eta urte berriari aurrera jarriko dela abian.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Udalaren eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren arteko lankidetzaz hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen eta gizarte zerbitzuek artatutako pertsonen artean botiken erabilera optimizatzeko programa garatzeko.

7.- Onartzea, hala badagokio, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Debako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren eranskina, hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzekoa eta hasierako indarraldiari amaiera ematekoa.

Alkateak azaldu zuen gai horrek ere Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordearen aldeko irizpena zuela. Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen artean sinatuta hitzarmena 2024ko abenduaren 31n bukatzen da, eta Foru Aldundiak 9

hilabetez luzatzea erabaki du, horrela hasieran erabakitako 4 urteko indarraldia beteko da. Eranskin horrek hasieran sinatutako hitzarmenaren ondorio ekonomikoak luzatzea dakar.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Debako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzahitzarmenaren eranskina, hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzekoa eta hasierako indarraldiari amaiera ematekoa.

8.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

8.1 Gilen Garciak azaldu zuen bi aipamen gin nahi zituela:

Bata, gogorarazteko herriaren sarren bi ikur kendu zirela, bata Udala Uemako kidea zela adierazten zuena, eta, bestea, indarkeria matxistaren aurkakoa, eta geroztik urte eta erdi pasa zela eta seinaleak berriro ere jarriko zirela esan zenez, gogorarazi nahi zuela oraindik jarri gabe zeudela.

Eta bestea, bazekiela Alkatetzaren Dekretuaren bidez hotela irekitzeko baimena eman zela, dagoeneko irekita zegoela, eta hori albiste ona zela. Gaia ez zela osoko bilkuraren bilera batean aipatzekoa, baina aurreko agintaldietan ere eman zuen lana, eta herrian duen eragina aintzat hartua, nahiz eta ekimen pribatuko gaia izan, pozgarria zela hotela irekita egotea.

Alkateak erantzun zion bi gaiekin ados zegoela.

Bilera amaitu aurretik, Alkateak berriro eskerrak eman zizkien denoi, eskertu zituen ere urte osoan zehar egindako lana, gogorarazi zuen hurrengo osoko bilkuraren ohiko bilera urtarrilaren 30ean izango dela, eta Gabon zoriontsuak eta Urte Berri on bat opa zien guztiei.

Besterik ez zegoenez, 19:25etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

